

KALE ERABILERA DATUAK AZTERTUZ, GAZTEEI BEGIRA

Olatz Zabaleta

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kidea

Helbide elektronikoa: bulegoa@topagunea.com

Euskararen erabileraren sustapenean aritzen garenok behar beharrezkoak ditugu aldian behin bilakaera soziolinguistikoak adierazten dizkiguten ikerketak. Ezagutza datuak izaten dira datu horietako batzuk eta azken urteetako bilakaera orohar baikorra da, batez ere Hego Euskal Herriari dagokionean eta haur eta gazteen arloan. Erabileraren gaineko kezka gero eta zabalduago dagoen honetan kale erabileraren neurketa ezinbesteko datua da eta ildo horretan Soziolinguistika Klusterrak gidatzen duen taldeak egindako lana eskertu beharra dugu.

DATUEI BEGIRA

2006ko urrian egindako V. Kale Erabileraren Neurketako datuek irakurketa gazi-gozoa eragin digute. Gozoa Euskal Herriko **datu orokorrek**, motel bada ere, **gorazko joera** adierazten dutelako; baita orain arte behe-razko joera adierazten zuen *Arabak* ere joera aldatu eta gorazko bidea abiatu duela ematen duelako ere. Halaber, *Nafarroa* egonkor mantendu da oraingoan ere, Gobernuaren aldetik izan dituen laguntza eza eta traben gainerik.

Iparraldeak neurketa egiten hasi zenetik, 1993tik, daraman behe-razko joerak, ordea, irakurketa gazia eragin digu; eta arreta deitzeko moduko iruditzen zaigu *Bizkaiko* kasua. Orain arte etengabeko gorazko joera mantendu duen herrialde horrek, erabilera datu hauen argira, azkene-ko bost urte hauetan joera aldatu duela dirudi. Hala ere, 2001eko emaitzak zenbait faktoreren eraginez baikorregiak izan ziren irakurketa egin daiteke eta 2006ko emaitzak goranzko joera orokorra zuzentzera etorri direla ere pentsa genezake, eta beraz, 17 urtetako perspektibarekin Bizkaian ere kale erabilera haziz doala dirudi.

Gipuzkoak bere goranzko joera mantendu du eta, azken bi neurketen arteko alderaketa eginez gero, herrialde horren eta azken lau urtetako Arabaren igoeraren artean Euskal Herri mailako gorazko joera mantendu dutela pentsa daiteke.

Euskal Herri mailako datuak adin taldeka aztertzen baditugu bi datu dira bereziki gozoak, baikorrak:

1. **Adin talde guztietan, adinekoengan ezik, euskararen erabilera-
ren gorazko joera** ageri da. Nafarroako eta Iparraldeko kasuan ordea, kezkarria da haurren adin taldeak adierazten duen joera.
2. **Gazteek** Euskal Herri mailan, azken 17 urtean **herrialdez herrialde, goranzko joera** adierazten dute. Zaila da euskara elkarteek eta euskalgintzako bestelako erakunde batzuek haurren artean sustatu dituzten aisialdiko jarduerak emaitza honetan nolako eragina izan duten neurtzea, baina beste batzuen artean, elkarte horien lana ere hor atzean dagoela pentsa daiteke.

Datu hauek nahiko baikorrak badira ere, D ereduak izandako gorakadarekin batzuetan ezin ulertu dugu nola erabilera datuek ere ez duten gehiago gora egiten.

Ez dugu ahaztu behar, abiapuntu jakin batetatik hasten dugu gure irakurketa: **Kale Neurketak neurtzen duen erabilera** eremu pribatukoa izaten da normalean, familia edo lagun artekoa. Eta baieztapen honekin lotuta, beste egiaztapen bat: hizkuntza kalean erabiltzen denean, normalean ezagunen artean, lagun edo familiartekoen artean, eta **era informalean** izaten da.

Azken 17 urteetan **gazteen adin taldeak** izan duen gorazko joerari erreparatuz, oso esanguratsua da zonalde soziolinguistikoko ezberdinen arteko aldea. Zonalde erdaldunenetan denbora tarte horretan 0,6 puntuko igoera eman da, euskaldunak %25a baino gehiago diren inguruneetan igoera 9 puntukoa izan da, %50 baino gehiago direnetan berriz, 14 puntukoa, baina zonalde euskaldunenetan igoera 4,7 puntukoa besterik ez da izan, beste zonaldeetako igoerekin alderatuta oso apala izan da igoera. 2001tik 2006ra bitarteko bilakaerari erreparatuz, gainera joera beheranzkoa izan da, Bizkaian adibidez beherakada 11,2 puntura artekoa izan delarik.

HELDUEN ERAGINA

Zonalde euskaldunekin jarraituz, eremu hauetako **helduen erabilera**ren bilakaerak beheranzko joera izan du azken 17 urteetan lurralde guztietan Gipuzkoan ezik. Alde batetik, honek gazteen erabilera eragina izan dezakeela pentsa dezakegu, ezin baita ahaztu helduek erabilera duten gako izaera. Helduak gizartearen prestigio maila handieneko postuetan egoten ohi dira, aginte postuetan. Adin tarte honetan izandako jaitsiera gazteen erabilera eragiten duen faktore gehigarri bat dela pentsa daiteke.

Bestetik, sozializazio prozesuan euskarak atzeraka egitea, hau da, adin batetik aurrera sozializazioa (lan mundua, kasu adierazgarriena da) gaztelan izatea, erabilera bilakaera motel honetan erabakigarria da. Izan ere, euskara haurrek dezente gehiago erabiltzen dute, baina hizkuntza txikitzen ikasi duen hiztunak, hiztun osoan bilakatzeko, hizkuntza

*2006ko urriaren egindako V. Kale Erabilera-
neurketako datuek irakurketa gazi-gozoa eragin digute. Gozoa Euskal Herriko datu orokorrekin, motel bada ere, gorazko joera adierazten dutelako; baita orain arte beheranzko joera adierazten zuen Arabak ere joera aldatu eta gorazko bidea abiatu duela ematen duelako ere. Halaber, Nafarroa egonkor mantendu da oraingoan ere, Gobernuaren aldetik izan dituen laguntza eza eta traben gainetik.*

- 1. Adin talde guztietan, adinekoengan ezik, euskararen erabileraren gorazko joera ageri da. Nafarroako eta Iparraldeko kasuan ordea, kezkarria da haurren adin taldeak adierazten duen joera.**
- 2. Gazteek Euskal Herri mailan, azken 17 urtean herrialdez herrialde, goranzko joera adierazten dute. Zaila da euskara elkarteek eta euskalgintzako bestelako erakunde batzuek haurren artean sustatu dituzten aisialdiko jardueren emaitza honetan nolako eragina izan duten neurtzea, baina beste batzuen artean, elkarte horien lana ere hor atzean dagoela pentsa daiteke.**

horrekin zenbait funtzio sozial betetzeko aukera izan behar du, horrek kulturalki motibatuko du hiztuna. Hezkuntzak mugak ditu erabilera bultzatze aldera. Hizkuntzaren erabilera bultzatzeko bestelako neurriak guztiz beharrezkoak dira: aisialdia eta lan mundua euskalduntzeko plan-gintza irmoak egitea, adibidez.

Fishmanek adibidez, argi esaten du hiztunak hitzez eta idatziz ongi moldatzen direnean lan munduan hizkuntza hori txertatzea, gure kasuan euskara, hizkuntzaren biziberritzerako behar beharrezkoa dela: *“Helduon bizitzako zati handi bat (tentsioaz eta espektatiba profesionalaz, emulazio sozialaz eta akulturatze bidez arras garrantzitsua) lan munduak erutzen, moldatzen eta mugatzen digu”*.¹

Euskarak normalkuntzara edo garapen osora bidean pausoak eman ditu azken hiru hamarkadetan. Hezkuntza euskalduntzen jarritako ahalegina izan da azken 30 urteotako garapenaren zutabe nagusia. Denbora luzez egindako ahalegin guztia, *“erdi hutsean egindako ahalegina izan daiteke lan munduan jarraipenik ez badu. (...) Lan munduan espazioak irabaztea da euskarak duen hurrengo desafio handia. Are gehiago, pauso hori eman ezean, besteetan egindako ahalegina zapuzteko arriskua erreala da”*.²

Azken urteotan lan-mundua euskalduntzeko ahalegin bereziak egiten ari da hainbat eragile pribatu zein publiko eta zalantzarik gabe lan hori egin beharrezkoa da. Edonola, Euskara Elkarteen ikuspegitik azpimarratu beharrean gaude *“etxegiroa, auzo-ingurua eta bizi esparru amankomunak (gertuko Komunitatea)”*³ euskalduntzeak eragin beharrezko lehenetsuneko esparrua izaten jarraitu behar duela. Erabilerarako guneak irabazi behar ditugu gazteentzat ezezik helduentzat ere, hurbileko zerbitzugintza euskaldunduz, merkataritza arloan, elkartegintzan, aisialdiko kultur, kirol, elkarguneak euskaldunduz, euskarazko sormena garatzeko eremu berriak irabaziz, laburbilduz helduen aisialdian (zentzurik zabalenean ulertuta) eraginez.

GAZTEENTZAKO GUNEA

Hala ere, orain arte aipatutako *sozializazio prozesuan euskarak duen etenaren* arrazoiak gain, gure ustez, eremu euskaldunenetan gazteen adin taldeak izandako garapena *dibergentziarako joerak* ere azal dezake neurri handi batean, eta baita inguruak eskaintzen dizkien baliabide eta tresnek ere.

Gazteek orokorrean, dibergentziarako joera izaten dute, hots, desberdintasunak markatzeko joera. Dibergentzia, ezarritako araua apurtuz eraikitzen da. Etxeko eredia baztertzen dute, eta gurasoenetik ezberdinduko dituen **beren jerga eskatzen dute**. Beren *euskarazko jerga* eraikitzeke hizkera askatasuneko gunerik, adibidez aisialdiko gunerik, ez baldin badute, dibergentzia eta adierazkortasun bila erdarazko jerga eraikitzen dute eta euskara eskolarekin, zuzentasunarekin, erlazioztatzen dute; arau zurrunez jositako hizkuntzarekin.

Haurrek D ereduan euskara formala ikasten dute, baina ez kalean jolasteko behar duten euskara, euskara informala, komunikatiboa. **Ahoko euskararen, edo euskara komunikatiboaren, garapen eskasaren ondorioz, haur** euskaldun askok eta askok **adierazkortasun bila erdara**-ra jotzen dute. Heziketa euskaraz jaso arren, adierazkortasuna gehiengotan erdaratik datorkie. Haurrek, eta are gehiago erregistro informala eredurik ez duten guneeetan, **hizkera ez formalaren** sormenerako esparru zabalago eta askeagoak behar dituzte.

Hizkera formala oso neurri zorrotzekin irakatsi eta ebaluatu behar den bezala, **hizkera ez formalaren** sormenerako askoz ere esparru zabalago eta askeagoak behar dira. **Aisialdia erabilera sustatzeko tresna eraginkorra** da, kuadrillategi moduko egitasmoen datuek hori diote.

Guneak eraikitze bidean, Euskal Herri osoan hainbat eragilek bultzatuta (euskara elkarteek, bestelako gizarte erakundeek, hezkuntzaren inguruko eragileek eta erakunde publikoek, besteak beste) hainbat jarduera antolatzen dira euskara erabiltzeko guneak sortzeko helburuarekin: ludotekak, jolas tailerrak, udalelekuak, begiraleentzako soziolinguistika ikastaroak, gaztetxokoak... Azkeneko BAT aldizkariak aipatutako horren adibide ugari ikusi ahal izan ziren, adibidez Patri Arburua eta Anabel Armendarizek Nafarroako Udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuek, eta baita Nafarroako beste elkarte eta eragile batzuk ere martxan dituzten egitasmoen inguruan egindako artikuluan.

Batzuen ahalegineko egoera mantentzeko edo modu batera edo bestera hobetzeko balio badute ere, orohar Euskal Herrian aisialdiaren esparru hau ere jasotzen duen **plangintza orokor integralik** ez da existitzen, eta horrek haurren erabilera eragin nabaria du, batez ere zonalde soziolinguistiko erdaldunenetan.

BUKATZEKO

Datu guzti horiek garbi adierazten dute, hezkuntzak erabilera sustatze aldera, euskararen **kale erabilerak gora egin dezan**, mugak dituela eta erabilera bultzatu nahi bada, hizkuntza plangintzak bi aspektu jaso beharko dituela:

Hizkuntza ahularen aldeko **politika ausart, deliberatu eta irmoa**: hau da, erakunde publiko eta pribatuetan hizkuntza ahularen presentzia bermatuko duten bideak pausu irmoz abiatu eta sustatzea.

Hizkera **informalaren sorkuntza eta erabilera sustatzeko** askatasun **esparru zabalagoen sorrera** ere planifikatzea.

Asko hitz egin da aisialdiaz eta aisialdiko jarduerak euskararen erabilera sustapenerako izan dezaketen eraginaz, baina asko aipatzen den arren, aitortzen gutxi duen esparrua da. Orain arte, euskara estandarren erabilera formala izan da irakaskuntza sistemaren bidez normaltasunez hedatu den bakarra, instituzioetatik jarraitasun eta irmotasunez

Zonalde euskaldunekin jarraituz, eremu hauetako helduen erabilera bilakaerak beherantzko joera izan du azken 17 urteetan lurralde guztietan Gipuzkoan ezik. Alde batetik, honek gazteen erabilera eragina izan dezakeela pentsa dezakegu, ezin baita ahaztu helduek erabilera duten gako izaera. Helduak gizartearen prestigio maila handieneko postuetan egoten ohi dira, aginte postuetan. Adin tarte honetan izandako jaitsiera gazteen erabilera eragiten duen faktore gehigarri bat dela pentsa daiteke.

Gazteek orokorrean, dibergentziarako joera izaten dute, hots, desberdintasunak markatzeko joera. Dibergentzia, ezarritako araua apurtuz eraikitzen da. Etxeko ereduak baztertzen dute, eta gurasoenetik ezberdinduko dituen beren jerga eskatzen dute. Beren euskarazko jerga eraikitzeke hizkera askatasuneko gunerik, adibidez aisialdiko gunerik, ez baldin badute, dibergentzia eta adierazkortasun bila erdarazko jerga eraikitzen dute eta euskara eskolarekin, zuzentasunarekin, erlazionatzen dute; arau zurrunez jositako hizkuntzarekin.

planifikatu den bakarra, eta ez Euskal Herriko txoko guztietan ere. Erabileran informalean, hizkera komunikatiboan, Kale Neurketak neurtzen duen horretan, hankamotz jarraitzen dugu.

Gure ustez, zentzu horretan oso garrantzitsua da orain arte guraso elkarte, euskara elkarte eta bestelako erakundeek egindako lana, baina aisialdiko guneen, hizkera askatasunez erabiltzeko guneei euskararen erabileraren sustapenerako duten garrantzia aitortu eta behar den bezala planifikatzeko garaia heldu da.

Hasieran aipatu dugun modura, neurketek eragiten diguten irakurketa gazi-goza da, baina batez ere, lanean jarraitzeko bide erakusle direla esan genezake. Kale hizkera (hizkera informala) sortu eta aisialdiko hizkuntza ohituretan eragiteko gunek sortzen eta ereduak lantzen jarraitu behar dela erakusten dute datuek. Horretarako tresnak sortzea dagokigu euskararen normalkuntzan ari garenoi.■

OHARRAK

1. ZALBIDE, Mikel (2004-2005). *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. In *Hiznet Hizkuntza Plangintza Graduondoko Ikastaroa 2004-2005*. (Internet bidezko ikastaroa). Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa.: 50
2. UNANUE, A. eta INTXAUSTI, N. (2002). *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Eskoriatza eta Arrasate. LANKI eta EMUN: 142.
3. Fishman, J. 1991 (*Reversing Language Shift*. Clevedon: Multilingual Matters). Josean Urdangarin-en itzulpena: Urdangarin, J. 1997 *Familia bidezko jarraipena: hiztun herriaren muina*. Gasteiz: Hizkuntza Politika Sailburuordetza.